

GASTEIZKO INDUSTRIARI LAGUNTZEKO 2025-2029 PLANA

Posted on 13/06/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Gasteiz](#), [Hiri industrialak](#), [Industriari Laguntzeko Plana](#)

Gasteizko Udalak Naidarren laguntza izango du berriz ere 2025-2029 aldirako Industriari Laguntzeko Plana lantzeko.

Proiektu honen bidez, hiriko industria-sektorea bultzatuko duen estrategia bat definitu nahi da, egungo erronkak eta aukerak kontuan hartuta. Horretarako, industria-sarearen egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa egingo da, helburu estrategikoak egokituko dira eta inplikaturako eragileen parte-hartzea erraztuko duen gobernantza-eredu bat zehaztuko da.

Horrela, Gasteizko Udalak ibilbide-orri bat izango du tokiko industria indartzeko funtsezko arloetan, hala nola lehiakortasunean, berrikuntzan, jasangarritasunean, trantsizio energetikoan eta talentua erakartzean. Naiderrekin aurreko [2021-2024 Industriari Laguntzeko Plana](#) landu, idatzi, berrikusi eta ebaluatu zuen.

